

## BESTELAKO XEDAPENAK

### HEZKUNTZA SAILA

## 4064

*AGINDUA, 2019ko uztailaren 17koa, Hezkuntzako sailburuarena, zeinaren bidez dirulaguntzen deialdia iragartzen baita hezkuntza-komunitatea prestatzeko eta, bereziki, irakasleak etengabe prestatzeko eta pedagogia eta didaktika eguneratzeko jarduerak egiten dituzten irabazi-asmorik gabeko erakundeentzat.*

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak Heziberri 2020 plana onartu zuen 2020rako Europako esparruak ezarritako berrikuntza eta garapenerako ildo estrategikoak elkartzeko asmoari erantzuteko, hezkuntza eta prestakuntzari dagokienez eta gure testuinguru eta ingurunearen berezko hezkuntza-erronkak kontuan hartuta. Plan horretan sartuta dago «Hezkuntza-eredu pedagogikoaren markoa», hezkuntza-eredu pedagogikoaren ildo nagusiak jasotzen dituen proiektua. Proiektu horrek paradigma-aldaketa garrantzitsua dakar; izan ere, kompetentzietan oinarritutako hezkuntzaren planteamendutik abiatzen da. Kompetentzien araberrako pedagogiaren ikuspegiaren ezaugarria hauxe da: eskuratutako ikaskuntzak transferitzea, bideratzea eta konbinatzea, egoera funtzional konplexuak konpontze aldera.

Oinarrizko Hezkuntzaren curriculuma zehaztu eta Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzen duen abenduaren 22ko 236/2015 Dekretuaren arabera, hauek garatu behar ditu Oinarrizko Hezkuntzak modu integralean: pertsonaren gaitasunak, eta norberaren errealizazio eta garapenerako bizi osoan zehar behar dituen oinarrizko gaitasunak, herritar aktiboak, gizarteratzea eta enplegua lortzeko. Era berean, zehaztuta dago ikasleek, Oinarrizko Hezkuntza amaitzen dutenerako, hezkuntza-xedeak betetzeko eta bizitzaren esparru eta egoera guztietan moldatzen jakiteko oinarrizko kompetentziak barneratuta izan behar dituztela. Eta, hori lortzeko, euskal hezkuntza-sistemako irakasleek kompetentzien profil egokia eduki behar dute, beren egitekoak eta lanak baldintza onenetan bete ahal izateko. Ildo horretan, irakasleen prestakuntzaren helburua da behar den kompetentzia-profila erdiestea, ikasleek irteera-profilean ezarritako kompetentziak eskura ditzaten, eta hezkuntza-arloan eskumena duen sailak bultzatutako prestakuntza-jarduerak ezaugarrituko dira, besteak beste, hezkuntza berriztatzekeo proiektuak bultzatuz bikaintasuna sustatzeagatik eta profesionalen arteko eta hezkuntza-komunitatearekiko lankidetzaprozesuak laguntzeagatik (berdinen arteko prestakuntza, sareak sortzea).

Helburu horiek lortzeko, jarduketa-programa sistematiko, koordinatu eta jasangarri bat garatu behar da egon dauden baliabideak optimizatzeko eta unibertsitateaz kanpoko irakasleak etengabe prestatzen diharduten eragileen artean behar diren sinergiak sortzeko. Ildo horretan, egokia da azpimarratzea oso garrantzitsua dela baloratzea eta, aldi berean, aprobeztatzea hezkuntza-esparruko hainbat eragilek euren ekimenez egiten dituzten prestakuntza-jarduerak, irakasleen prestakuntzarekin lotuta.

Hori dela eta, Hezkuntza Sailak dirulaguntzen deialdia egiten du hezkuntza-komunitatea eta, zehazki, irakasleak etengabe prestatzen diharduten irabazi-asmorik gabeko erakundeen jarduerak diruz laguntzeko.

Horregatik, bat etorri Hezkuntza Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen apirilaren 11ko 79/2017 Dekretuan xedatuarekin, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrarekin, lege hori garatzen duen Erregelamenduarekin eta azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuak onartutako Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren

Antolarauei buruzko Legearen testu bateginaren VI. tituluarekin (Euskal Autonomia Erkidegoko Herri Administrazioaren eremuko dirulaguntzak arautzen dira titulu horretan), eta aintzat hartuta aurrekontu-zuzkidura nahikoa dagoela Euskal Autonomia Erkidegoko 2018ko Aurrekontu Orokorrak –2019rako luzatuak– onartzen dituen abenduaren 22ko 5/2017 Legean onartutako kredituen arabera, eta aplikazio orokorreko bestelako xedapenekin bat etorritik, honako hau

#### EBAZTEN DUT:

##### 1. artikulua.– Xedea.

1.– Deialdi honen xedea da dirulaguntzak ematea Euskal Autonomia Erkidegoan diharduten irabazi-asmorik gabeko erakundeei, zeinek hezkuntza-komunitatea prestatzeko eta, bereziki, unibertsitateaz kanpoko irakasleak etengabe prestatzeko jarduerak burutu baitituzte 2018ko urriaren 1etik 2019ko irailaren 30erako aldirian, datozen artikuluetan adierazten diren baldintzetan.

Agindu honen xedetik kanpo geratzen dira Hezkuntza Saileko Hezkuntza Berriztatzeko Zuzendaritzak egindako beste deialdi batzuen babesean diruz lagundutako jarduera guztiak.

2.– Helburu hori lortzeko, guztira 100.000 euro bideratuko dira, Euskal Autonomia Erkidegoaren Aurrekontu Orokorretan helburu horretarako ezarritako aurrekontu-sailen kontura.

##### 2. artikulua.– Laguntzen izaera.

1.– Itzuli behar ez diren dirulaguntzen bidez gauzatuko dira ebazpen honetako laguntzak, eta lehiaketa-prozeduraz emango dira.

2.– Aurkeztutako eskabideak ebaluatu ondoren, baloraziorik handiena lortzen dutenak baietsiko dira, harik eta horretarako jasotzen den aurrekontu-kreditua agortu arte.

##### 3. artikulua.– Erakunde onuradunak.

Izaera pribatuko eta irabazi-asmorik gabeko pertsona juridikoek eskatu ahal izango dituzte deialdi honetako dirulaguntzak, legez eratuta badaude, Euskal Autonomia Erkidegoaren eremuan jarduten badute eta deialdi honen xede diren jarduerak Euskal Autonomia Erkidegoko irakasleentzat garatzen badituzte.

##### 4. artikulua.– Onuradunen betekizunak eta egiaztapenak.

1.– Prozeduran parte hartzeko, eskabidea behar bezala eta epean aurkeztu beharko dute erakundeek, Eusko Jaurlaritzaren egoitza elektronikoan, deialdi honen 6. artikuluan xedatuarekin bat etorritik.

2.– Ezin izango dira erakunde onuradun izan honako egoeraren batean dauden erakundeak:

– Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorren 13. artikuluen 2. eta 3. zenbakietan azaldutako egoeraren batean daudenak.

– Dirulaguntza edo laguntza publikoak jaso ahal izateko aukera galtzea dakarren zigor penal edo administratiboa edukitzea, eta horretarako ezgaitzen duten lege-debekuetan sartuta egotea, Emakume eta Gizonen arteko Berdintasunari buruzko otsailaren 18ko 4/2005 Legearen arabera sexuagatiko diskriminazioan erortzeagatik gertatutakoak barne.

Alde horretatik, erantzukizunpeko adierazpen bat aurkeztu ahal izango dute erakundeek, erakunde onuradun izateko debekua dakarten egoeretan sartuta ez daudela justifikatzeko; dena dela, horrek ez du balioko zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituztela justifikatzeko.

3.– Erakunde onuradunei dirulaguntza horiek emateko –eta, hala badagokio, ordaintzeko– ezinbestekoa izango da amaiera ematea Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorra eta haren erakunde autonomoek emanda dituzten izaera bereko laguntzen edo dirulaguntzen arloan hasi eta oraindik izapidetzen ari diren itzulketa- edo zehapen-prozedura guztiei.

4.– Dirulaguntzaren eskabidea aurkeztuta, eskatzaileak baimena ematen dio laguntza ematen duen organoari zuzenean egiaztatzeko laguntzak eskatzen dituzten erakundeek betetzen dituztela zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak; izan ere, organo kudeatzaileak automatikoki eta behar beste aldiz egiaztatuko du hori, eta ez du eskatzaileen baimenik beharko horretarako, hala ezarrita baitago Dirulaguntzei buruzko Erregelamendu Orokorra onartzen duen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren 22. artikuluan eta Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bategina onartzen duen azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuan. Erakunde eskatzaileak berariaz egin diezaioke uko baimen horri, eta, hala eginez gero, ziurtagiria aurkeztu beharko du, Dirulaguntzei buruzko erregelamendu orokorraren 22. artikuluan azaltzen den eran.

5.– Honako hauek egiaztatuko dira eskabideari erantsitako erantzukizunpeko adierazpenaren bidez:

– Ez duela jaso xede bererako dirulaguntzarik, laguntzarik, diru-sarrerarik edo bestelako baliabiderik, Hezkuntza Sailaren Hezkuntza Berrizatzeko Zuzendaritzak diruz lagundutako deialdi edo programetatik datorrenik.

– Ez duela administrazio- edo zigor-zehapenik, laguntza edo dirulaguntza publikoak lortzeko aukera kentzen dionik, eta ez duela laguntza horiek jasotzeko legezko debekurik, eta, halaber, ez duela debekurik dirulaguntzak itzultzeko obligazioak egunean ez izateagatik.

– Eskabidean eta dokumentazioan jasotako datuak egiazkoak direla, laguntza hauen onuradun izateko indarrean den araudian ezarritako betekizunak betetzen dituela eta ez dagoela Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorren 13. artikulua 2. eta 3. apartatueta jasotako egoeraren batean.

5. artikulua.– Diruz lagun daitezkeen jarduerak.

1.– Ekintza hauek egingo dituzte diruz lagundutako jarduerak:

a) Prestakuntza-ikastaro edo/eta ikastaro zientifiko eta teknikoak antolatu eta kudeatuz, irakasleak etengabe prestatzeko ekintzak egiteko. Ikastaro horiek zerikusia izan beharko dute hezkuntza-eremuarekin, gai didaktikoak eta pedagogikoak eguneratzearekin, eta bat etorri beharko dute sailak bultzatzen dituen lehentasunezko jarduketa-ildoekin. Aurrez aurreko ekintzen bidez gauzatu behar da idatzi-zati honetan adierazitakoaren barruan egindako ekintza oro. Era berean, dirulaguntzari heltzeko, gutxienez 15 partaide izan beharko dira ekintzako.

Diruz laguntzeko aurrekontuaren % 75 emango zaie gehienez a) apartatu honetan jasotzen diren ekintzei, eta, gehienez ere, 2.000 euro emango da ekintzako. Gainera, kontuan izango da gehienez eman daitezkeen dirulaguntzaren muga: 100 euro emandako ordubeteko ikastaro presentzialeko (gastu guztiak barne).

b) Irakasleak etengabe prestatzen izandako esperientziak zabaltzeko eta trukatzeko ekintzak, esaterako, topaketak, kongresuak, jardunaldiak, jardunbide egokien eskuliburu edo gidaliburu aldizkako argitalpenak, zeinek lotuta egon beharko baitute hezkuntza-eremuko ikerketarekin, gai didaktikoak eta pedagogikoak eguneratzearekin eta sailaren lehentasunezko jarduketa-ildoak bultzatzearekin.

Diruz laguntzeko aurrekontuaren % 75 arte lagundu ahal izango dira diruz gastuak, eta, gehienez ere, 10.000 euro emango da ekintzako. Ekintzak justifikatzeko, hauek onartuko dira b) apartatu honetan, 1.000 euroko gehieneko mugarekin: argitalpenen diseinua, maketazioa, inprimaketa eta banaketarekin, publizitatearekin, lokala alokatzearekin eta topaketa, mintegia edo kongresua koordinatzearekin zerikusia duten gastuak. Koordinazio-gastuek ezingo dute aurrekontu horren % 10 gainditu, eta, gehienez ere, 500 euroko muga izango dute.

2.– Diruz lagun daitekeen gastuaren zenbatekoak Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legean kontratu txikirako ezarritako zenbatekoak gainditzen dituenean, onuradunak hornitzaile desberdinen gutxienez hiru eskaintza eskatu beharko ditu zerbitzua emateko konpromisoa hartu aurretik, salbu eta ezaugarri bereziak izateagatik merkatuan ez badago halako zerbitzurik eskaintzen duen nahikoa erakunde, edo salbu eta gastua dirulaguntzaren aurretik egin bada.

3.– Erakunde onuradunak diruz lagundu daitekeen jarduera gauzatzeko azpikontratatu ahal izango du, baina, % 75 gehienez ere, eta, edonola ere, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 29. artikuluan horri buruz ezarritakoa errespetatu beharko du.

4.– Kanpoan geratuko dira Hezkuntza Saileko Hezkuntza Berriztatzeko Zuzendaritzak diruz lagundutako prestakuntza- edo zabaltze-ekintzak, edo hark bultzatutako deialdien babesean eginak; era beran, kanpoan geratuko dira jarduera profesionala betetzeko eskatzen den legezko titulua/ziurtagiria ematea dakarten ekintzak edo beste titulazio batzuen parte direnak (ofizialak, ez ofizialak), baita gradu-, graduondo- eta master-tituluak eta antzekoak ere.

Halaber, kanpoan geratuko dira: erakunde antolatzailearen langileei berariaz zuzentzen zaizkien ekintzak, erakunde antolatzailearekin lotutako erakundeetako langileei zuzentzen zaizkien edo kontratu- edo azpikontratu-harremanak edo antzekoak dituzten erakundeko langileei zuzentzen zaizkienak.

5.– Ez dira diruz lagunduko ekintza hauen gastuak:

a) Aldizkarietan edo beste hedabide batzuetan artikulua argitaratzeko gastuak, aurretik argitaratutakoak berriro editatzeko gastuak; beste ekitaldi batzuetan dirulaguntzak jaso zein ez.

b) Izan badiren tresna informatikoak egokitu edo moldatzeko gastuak.

c) Lehiaketak, sariketak edo antzekoak.

6.– Erakunde bati bere jarduerak egiteagatik ematen zaizkion dirulaguntzek ezin izango dute deialdi honetako aurrekontuaren % 20 gainditu.

7.– Diruz lagunduko diren jarduerak, bestalde, 2018ko urriaren 1etik 2019ko irailaren 30era bitartean egin beharko dira.

6. artikulua.– Eskabideak aurkeztea.

1.– Eskabideak, I. eranskinen ereduaren arabera, baliabide elektronikoz aurkeztu beharko dira, 2019ko irailaren 27ra arteko epean, agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

2.– Egoitza elektronikoa honetatik eskuratu ahal izango da eskabide-orriaren eredu, 4.5 artikuluan adierazitako erantzukizunpeko adierazpenak jasotzen dituena:

[https://www.euskadi.eus/ayuda\\_subvencion/2019/prest\\_gara-asal/y22-izapide/es/](https://www.euskadi.eus/ayuda_subvencion/2019/prest_gara-asal/y22-izapide/es/)

3.– Erakunde eskatzaileek euskaraz edo gaztelaniaz aurkeztu ahal izango dituzte eskabidea eta gainerako dokumentuak. Prozedura osoan zehar, eskatzaileak hautatutako hizkuntza erabiliko da, Euskararen erabilera normalizatzeko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legearen 5.2.a) eta 6.1 artikuluetan ezartzen den moduan.

Eskabidea egin ostean, <https://www.euskadi.eus/nirekarpeta> web-orriaren bidez egin beharko dira hura onartzeko edo ukatzeko ebazpena eman arte egin beharreko izapide guztiak, bai eta justifikazio-izapidea ere.

4.– Eskabide-orriari, bestalde, Elkarteen Erroldako edo dagokion errolda publikoko inskripzioaren ziurtagiriaren kopia erantsi beharko zaio, baita honako dokumentazio tekniko hau ere:

a) 2019. urtean egindako jardueren edo egin nahi diren eta dirulaguntzen deialdi honen xede diren jardueren deskribapen zehatza, ekintzak bereizita (II. eranskina). Ekintza bakoitzari dagokionez, hauek adierazi beharko dira: ekintza-mota (5.1 artikulua a) edo b) apartatuetan jasotzen diren ekintzak), helburuak, metodologia, ebaluatzeko sistema eta adierazlearen definizioa, baita ere pertsona hartzaile potentzialak zein diren eta zenbat, ekintzak zenbat iraungo duen eta noiz eta non burutuko den.

b) Ekintza guztien aurrekontu xehatua hauek jasoko dira: gastuak, eta, hala badagokio, matrikulak egiteak, sarrerak dokumentazioa edo material informatikoa saltzeak dakartzan sarrerak, baita jarduerarekin lotuta dagoen beste edozerk dakartzanak ere.

5.– Aurkeztutako eskaeran akatsen bat, datu ez-zuzenen bat dagoela edo agiriren bat falta dela ikusten bada, 10 eguneko epea emango zaio eskatzaileari arazoa zuzen dezan. Zuzenketa egin ezean, eskaerari uko egin diola ulertuko da. Kasu horretan, ebazpena emango da, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 68. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik.

7. artikulua.– Organo kudeatzailea.

Hezkuntza Berriztatzeko zuzendariak kudeatuko du agindu honetan ezarritako dirulaguntzak emateko prozedura.

8. artikulua.– Hautaketa-batzordea.

Hautaketa-batzorde bat eratuko da aurkeztutako eskabideak aztertu eta ebaluatzeko. Honako hauek osatuko dute:

a) Hezkuntza Berriztatzeko Zuzendaritzako Irakasletoa Hobetzeko Zerbitzuaren arduraduna; batzordeburua izango da.

b) Bi teknikari, Hezkuntza Berriztatzeko zuzendariak izendatuak; haietako batek idazkari jardungo du.

9. artikulua.– Adjudikatzeko irizpideak eta hautatzeko prozedura.

1.– Hautaketa-batzordeak eskabide-orri guztiak ebaluatuko ditu, honako irizpide hauek kontuan hartuz:

a) Proposatutako jardueraren kalitatea: gehienezko balorazioa: 20 puntu. Ez da onartuko gutxienez 10 puntu lortzen ez duen proposamenik.

a.1.– Proposatutako ekintzen koherentzia, argitasuna eta zehaztasuna: jarduteko premiari buruzko atariko diagnostikoa; helburuak eta espero diren emaitzak; aurreikusitako ekintzak zehatz-mehatz; helburuko publikoa; zer esperientzia duen erakundeak eduki edo garrantzi bereko jardueretan; genero-ikuspegia sartzea. (0 puntutik 8ra).

a.2.– Aurkeztutako aurrekontuaren argitasuna eta egokitasuna: eskatutako dirulaguntza, gutzira; ea aurrekontua egokia den proposatutako ekintzetarako, honelako aldagaiak jasota: zenbat pertsonari zuzentzen zaion ekintza, zenbat ale, zer espezializazio maila behar den ekintza aurrera ateratzeko (0 puntutik 7ra).

a.3.– Jarduera kalitate onekoa izango dela eta emaitzak baloratuko direla ziurtatzeko sistema baten definizioa, ebaluazio-adierazleak barne. (0 puntutik 5era).

b) Garatu beharreko jardueraren potentzial estrategikoa eta egokitasuna: ea egokia den Hezkuntza Saileko unibertsitateaz kanpoko irakasleak etengabe prestatzeko Prest\_Gara Planaren markoko helburuak, ildo estrategikoak eta ekintzak erraztu eta bultzatzeko. (0 puntutik 10era).

c) Jardueraren eragina: proposatutako ekintza zein lurralde-eremutan proiektatuko den eta zenbat pertsonari zuzenduko zaien, eta zer ahalmen duen hezkuntza-komunitateko taldeetako bakoitzean eragiteko; borondaterik dagoen ala ez proposatutako ekintzarekin jarraitzeko, eta zein den egituran esku hartzeko potentziala, egoera koiunturalaz aparte; egoeran ekintza egokitu edo transferitzeko aukera. (0 puntutik 10era).

2.– Eskabideen balorazioa kontuan izanik, hautaketa-batzordeak ebazpen-proposamen bat prestatu eta Hezkuntza Berriztatzeko zuzendariari igorriko dio. Proposamen horrek jasoko du zer ekintza hautatu diren, eta zer dirulaguntza proposatzen den ekintza bakoitzerako. Halaber, kanpoan utzitako eskabideen zerrenda ere jasoko da, arrazoiak adierazita.

10. artikulua.– Prozedura ebaztea.

1.– Hezkuntza Berriztatzeko zuzendariak ebatziko du deialdi hau, sei hilabeteko epean, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunetik hasita.

2.– Ebazpena modu elektronikoa jakinaraziko zaie erakunde interesdunei eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da denek jakin dezaten.

3.– Epe horretan ebazpenik eman ezean, eskabideak ezetsi direla ulertu beharko da, hala ezarrita baitago Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 25.1 artikuluan.

4.– Ebazpenak ez dio amaiera emango administrazio-bideari, eta, haren aurka, gora jotzeko errekurtsioa jarri ahal izango zaio Hezkuntzako sailburuordeari, hilabeteko epean, ebazpena elektronikoki jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera.

11. artikulua.– Dirulaguntzen bateragarritasuna.

1.– Deialdi honen babespean ematen diren dirulaguntzak bateraezinak dira Hezkuntza Saileko Hezkuntza Berriztatzeko Zuzendaritzak egiten dituen beste deialdi batzuetatik lor daitekeen beste edozein dirulaguntzarekin. Hala ere, bateragarriak dira beste dirulaguntza batzuekin, baldin eta, helburu bera izanik, beste erakunde publiko edo pribatu batek ematen baditu.

2.– Nolanahi ere, emandako laguntzek eta dirulaguntzek, jarduera bererako beste dirulaguntza batzuek eta finantzatutako ekintzaren bidez lortutako diru-sarrerek, denek batera, ezin izango dute gainditu burututako jarduerak guztira sortzen duen gastuaren % 100.

## 12. artikulua.– Erakunde onuradunen betebeharrak.

Agindu honen bidez deitutako dirulaguntzen erakunde onuradunek Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 14. artikuluan jasotako betebeharrak bete beharko dituzte (finantzaketa publikoa jaso dutela egoki jakinarazteko neurriak ere hartu beharko dituzte, Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorraren 18. artikulua 3. eta 4. apartatuetan jasotakoarekin bat); horiez gainera, betiere, betebeharrak hauek bete beharko dituzte:

a) Helburua betetzea, proiektua gauzatzea, jarduera egitea edo dirulaguntza eman izanaren oinarrian dagoen jarrera hori hartzea.

b) Emandako dirulaguntza onartzea. Ildo horretan, onartzen dela ulertuko da, salbu eta erakunde onuradunak berariaz eta idatziz uko egiten badio ebazpena elektronikoki jaso eta hamar eguneko epean.

c) Kontrol Ekonomikoko Bulegoari eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiari, beren eginkizunetan dihardutela, eskatzen duten informazioa ematea deialdi honen kargura jasotako dirulaguntzei buruz.

d) Beste edozein administrazio edo erakunde publiko nahiz pribatuk helburu bererako emandako dirulaguntzak, laguntzak, diru-sarrerak edo baliabideak eskuratuz gero, horren berri ematea Hezkuntza Berriztatzeko Zuzendaritzari.

e) Dirulaguntza emateko kontuan hartutako edozein inguruabar aldatuz gero, horren berri ematea Hezkuntza Berriztatzeko Zuzendaritzari.

## 13. artikulua.– Dirulaguntza ordaintzea.

1.– Dirulaguntza ordaintzeko, diruz lagundu daitekeen ekintza gauzatu beharko da aurretik, hura emateko ebazpenean ezartzen diren baldintza eta modu beretan, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 31. artikuluan xedatuarekin bat, eta honako dokumentazio hau aurkeztu beharko da 2019ko azaroaren 4a baino lehenago:

a) Burututako jardueren azalpen-memoria. Aurreikusitako plana bete dela erakusteko eta ziurtatzeko behar diren xehetasun guztiak izan beharko ditu.

b) Prestakuntza-ekintzak ikastaroak, kongresuak edo jardunaldiak direnean, txosten bat aurkeztu beharko da, partaideek betetzen duten ebaluazio-galdeketatik ateratzen diren ondorio guztiak jasotzen dituena. Galdera-sorta hori erantzuteko, kontuan izan beharko dira ekintza horretako eskabide-orrian adierazten diren helburu zehatz guztiak.

c) Onartutako aurrekontuan azaltzen diren gastuei dagozkien egiazko ziurtagiriak, fakturak edo zuzenbidean onartzen den beste edozein agiri; eta ondokoak ere hala egiaztatu beharko dira: matrikulatik, agirien salmentatik eta gainerako finantzaketa-iturrietatik sortutako diru-sarrerak, guztiak ere proiektuan aurreikusitakoak. Kontzeptu finantzarriek bereizita eta banakatuta agertu beharko dute faktura horietan. Fakturen edo dokumentuen gastu-datak ezin izango dira 2019ko irailaren 30a baino geroagokoak izan.

2.– Artikulu honetan aipatutako justifikazio-agiriak bitarteko elektronikoak erabiliz aurkeztu beharko dira honako helbide honetan: <http://www.euskadi.net/nirekarpeta>

3.– 2019. urtea amaitu baino lehen egingo da ordainketa.

#### 14. artikulua.– Emateko ebazpena aldatzea.

1.– Dirulaguntza emateko aintzat hartu diren baldintzarik aldatuz gero, aldatu ahal izango da dirulaguntza emateko ebazpena, baldin eta dirulaguntzaren helburua betetzat jotzen bada; betiere erakunde onuradun izateko ezartzen diren gutxieneko baldintzak betetzen badira, eta, hala bada-gokio, administrazio honetatik edo beste edozein administrazio publiko edo erakunde publiko edo pribatutatik jasotako laguntzak edo dirulaguntzak bateragarriak badira.

Ondorio horietarako, Hezkuntza Berriztatzeko zuzendariak aldaketak egiteko ebazpena emango du dirulaguntzaren zenbatekoak doitzeko. Erakunde onuradunak, bestalde, itzuli egin beharko du mugaz kanpo jasotako zenbatekoa.

2.– Finantzatutako jarduerari lotutako gastu eta diru-sarrera guztiak kontuan hartuta, jardueraren balantze ekonomikoa aurrekontuan jasotakoa baino txikiagoa bada, dirulaguntza proportzionalki doitu zaio benetan sortutako gastuari.

#### 15. artikulua.– Jarraipena eta kontrola.

Hezkuntza Berriztatzeko Zuzendaritzak jarraipen- eta kontrol-sistemak ezarri ahal izango ditu, edo/eta behar beste datu eskatu ahal izango du onartutako jarduera bakoitzean aurreikusitako helburua eta emaitzak bermatzeko.

#### 16. artikulua.– Ez-betetzeak.

1.– Dirulaguntzen onuradun diren erakundeak, nolahi ere, Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontuen kargurako laguntza publikoak erabiltzeagatik ezartzen den zehapen-araubideari eutsi beharko diote, eta honako kasu hauetan itzuli beharko dute eman eta jasotako zenbatekoa eta aplika daitezkeen legezko interesak, berandutze-interesak barne direla:

a) Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2033 Lege Orokorraren 37. artikularen 1. apartatuan jasotako itzulketa-kausaren bat egoteagatik.

b) Dirulaguntza ez erabiltzeagatik hura eskatu eta eman zenean adierazita zegoen xede espezifikorako.

c) Dirulaguntza eragin zuen jarduera ez gauzatzeagatik.

d) Ez justifikatzeagatik dirulaguntza erabili dela eman zen helburu zehatzetarako.

e) Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bategina onartzen duen azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuaren VI. tituluari, agindu honetan edo dirulaguntza emateko ebazpenean ezarritako betebeharrak ez betetzeagatik.

2.– Dirua itzultzeko, abenduaren 17ko 698/91 Dekretuan horretarako ezarritako prozedura beteko da. Dekretu horren bidez, Euskal Autonomia Erkidegoaren Aurrekontu Orokorren kontura ematen diren dirulaguntzen bermeei eta horiek itzultzeari buruzko erregimen orokorra arautzen da eta horien kudeaketan parte hartzen duten erakunde laguntzaileek bete beharreko baldintzak, erregimena eta eginbeharrak ezartzen dira. Nolanahi ere, hori ez da eragozpena izango bideratu beharreko beste ekintza guztiak bideratzeko. Bestalde, aipatutako zenbateko horiek diru-sarrera publikotzat joko dira, legezko ondorio guztietarako.

#### 18. artikulua.– Datuak babestea.

Datu Pertsonalak Babesteko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan eta Datu Pertsonalen Fitxategi Publikoei eta Datuak Babesteko Euskal Agentzia sortzeari buruzko otsailaren 25eko 2/2004 Legean ezarritakoarekin bat etorrituz, deialdi honetan parte hartzen dutenek baimena ematen dute deialdi hau izapidetzean jasotako datu pertsonalak tratatu eta argitaratzeko. Datuok, bestalde, fitxategi batean sartuko dira, dirulaguntzen deialdi hau kudeatzeko eta deialdi honetan parte hartzen dutenei deialdiaren garapenaren berri emateko. Fitxategi horren arduraduna Hezkuntza Berriztatzeko Zuzendaritza da. Datuak eskuratzeko, zuzentzeko, ezerezteko eta aurka egiteko eskubideak baliatzeko, Hezkuntza Berriztatzeko Zuzendaritzara jo beharko da (Donostia kalea 1, 01010 Vitoria-Gasteiz).

#### AZKEN XEDAPENETAKO LEHENENGOA

Zuzenean aplikatuko dira oinarritzko legedi gisa ematen diren aginduak, bai Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrekoak bai Dirulaguntzei buruzko Erregelamendu Orokorra onartzen duen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretukoak; izan ere, lege horietan agindutakoak lehentasuna izango du agindu honetan bildutako oinarrien aurrean, oinarritzko lege horiekin bat ez datozen alderdietan.

Prozedurari dagokionez agindu honetan aurreikusita ez dagoen guztian, xedapen hauek aplikatuko dira: Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauerei buruzko Legearen testu bategina onartzen duen azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuan eta Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean.

#### AZKEN XEDAPENETAKO BIGARRENA

Agindu honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta, beronen aurka, interesdunek aukerako berraztertze-errekurtsoa jarri ahal izango diote Hezkuntzako sailburuari, hilabeteko epean, edo bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahal izango dute Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiaren Administrazioarekiko Auzien Salan, bi hilabeteko epean, agindu hau argitaratu eta hurrengo egunetik hasita.

#### AZKEN XEDAPENETAKO HIRUGARRENA

Agindu honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteiz, 2019ko uztailaren 17a.

Hezkuntzako sailburua,  
CRISTINA URIARTE TOLEDO.

2019ko irailaren 2a, astelehena

## I. ERANSKINA

## ESKABIDEA

Eskabide elektronikoa – PREST\_GARA – IRABAZI-ASMORIK GABEKO  
ERAKUNDEAK

Instrukzio-organoari zuzendua

HEZKUNTZA BERRIZTATZEKO ZUZENDARITZA

Datu pertsonalak

**Titularra**

Identifikazio-dokumentua

Zenbakia

Erakundearen izena

**Ordezkaria**

Identifikazio-dokumentua

Zenbakia

Izena

Abizenak

Erakunde eskatzailearen datu fiskalak dituen probintzia / lurraldea

## Jakinarazpen eta komunikazioetarako kanala

Elektronikoa: "Nire kudeaketak" ataleko jakinarazpenen eta komunikazioen ontzira bidaliko dira. Bertara iristeko, identifikazio-modu elektronikoko bat behar da.

*10 egun naturaleko epean jakinarazpen elektronikora sartzen ez bazara, ulertuko da baztertu egin duzula; beraz, izapidea egindakotzat joko da, eta Administrazioak prozeduran aurrera segituko du.*

## Abisuak jasotzeko datuak

Helbide elektronikoa

Eskuko telefonoa

## Jakinarazpen, komunikazio eta abisuetarako hizkuntza

 Euskara  Gaztelania

## ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENAK

Hau adierazten dut erakunde eskatzaileari dagokionez:

- Ez da xede eta helburu bererako laguntza edo dirulaguntzarik jasotzen ari administrazio publiko eta erakunde pribatuetatik.
- Ez du zigorrik jaso, ez penalik ez administratiborik, laguntza edo dirulaguntza publikoak jasotzea galarazten dionik.
- Ez du dirulaguntza edo laguntza publikoak jasotzeko ezgaitzen duen legezko debekurik, espresuki aipatuta sexu-diskriminazioagatik gertatutakoak.
- Ez du jaso xede bererako dirulaguntzarik, laguntzarik, diru-sarrerarik edo bestelako baliabiderik, Hezkuntza Sailaren Hezkuntza Berriztatzeko Zuzendaritzak diruz lagundutako deialdi edo programetatik datorrenik.

2019ko irailaren 2a, astelehena

- Ez dago Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 13. artikuluko 2. eta 3. apartatueta zehaztutako egoeretako batean ere.
- Indarrean dauden arauetan ezarritako betekizunak betetzen ditu.
- Eskabide honetan eta honi gehitutako dokumentuetan adierazitako datu guztiak egiazkoak dira.

Zer dokumentu eman diren	
Dokumentu-mota	Izena

Instrukzio-organoak ofizioz egiaztatzea
<p>Araudi aplikagarriarekin bat etorritz, prozedura honen instrukzio-organoak datu hauek egiaztatuko ditu administrazio eskudunean:</p> <p>Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean ordaindu izanaren datuak (Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusia–GSDN)</p> <p>Tributu-betebeharrak egunean ordaindu izanaren datuak (EAEko foru-aldundiak edo Zerga Administrazioeko Estatu Agentzia)</p> <p><input type="checkbox"/> EZ DUT ONARTZEN prozedura honen instrukzio-organoak ofiziozko egiaztapenak egitea (39/2015 Legearen 28. artikulua).</p> <p><i>Onartzen ez baduzu, prozeduran eskatutako dokumentu guztiak aurkeztu beharko dituzu.</i></p>

Honek elektronikoki sinatua:

2019ko irailaren 2a, astelehena

## II. ERANSKINA

JARDUERA:.....

Modalitate-mota:            A            B

JARDUKETAREN BEHARRIZANA:

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

EDUKIAK:

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

METODOLOGIA:.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

EBALUAZIOA ETA LORPEN-ADIERAZLEAK:

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

JARDUERAREN GENERO-IKUSPEGIA:

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

HARTZAILE-KOPURUA:

.....

.....

JARDUERAREN IRAUPENA:

.....

EGITE-DATAK:

.....

TOKIA:

.....